



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko maiatzaren 18a

59. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57.2 artikuluan aipatutako konpentsazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, 2010ean hasitako Higiezinak berrantolatzeke Planaren hirugarren fasea bukatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zer urrats egin diren Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betearazte aldera; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernua premiatu zuena akordio bat lor zezan Nafarroan kokatutako finantza-entitateekin, haien jabetzako etxebizitzak etxegabeteek ukitutako pertsoneri eta familiei alokairu sozialeko araubidean emateko. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Santo Domingo egoitzan eskabideen ebaluazioa gerarazteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Santo Domingo egoitzan erabiltzaileak onartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren jokoerari buruzkoa, Artederretan (Unzue) aurkitutako hamar eskeletoei dagokienez, 1809an inguru horretan fusilaturiko armada napoleonikoko artilleria-soldaduenak izan baitaitezke. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako osasun garraioaren plan berriaren aurkezpen publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, osasun garraioko zerbitzuaren plan integral berriaren araberrako lizitazio-lehiaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egingen duen Nafarroaren iparraldeko arroetan eskuragarri dagoen informazioaren kalitatea eta azkartasuna hobetzeko, balizko uholdeen arriskuak eta larritasuna aurreikuste aldera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Club Atlético Osasuna-ren irregulartasunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Falciani zerrendari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, haurdunaldiaren borondatezko etendura dela-eta profesionalen erregistroa sortzen duen azaroaren 8ko 16/2010 Foru Legeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- Galdera, haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Museoak igandeetan bi solairu ixteko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, beste herrialde batzuetan lan-etorkizuna aurkitzearen Nafarroatik alde egiten duten pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, mendekotasuna izanda Iruñean edo Iruñerrian bizi ziren eta gaur egun kanpoan, Nafarroako Gobernuarekin itundutako egoitza batean, bizi diren pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Iruñean eta Iruñerrian itundutako egoitzetako toki-kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, IPESen Emakumearen Liburutegiaren finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko Departamentu bakoitzak legegintzaldiaz egiten duen balantzeari eta hurrengo legegintzaldirako jorratzeke gelditzen zaizkion gaiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, eraldaketa edo/eta banaketa sektoreak nekazaritzako elikagaien produkzioaren Nafarroako sektorean eskua sartzeari edo presioa egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko lehen fasea handitzeko obretan legar-hobiak erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, urriaren 23ko 467/2001 Foru Aginduaren betetze-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57.2 artikuluan aipatutako konpentsazioei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57.2 artikuluan aipatutako konpentsazioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko otsailaren 20ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko martxoaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak informazioa eskatu du martxoaren 10eko 2/1995

Foru Legearen 57.2 artikuluan aipatutako konpentsazioei buruz (8-15/PES-00014). Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak 2014an zehar eta 2015ean gauzatu dituen konpentsazioen eta gaur egun gauzatu gabe dauden konpentsazioen gaineko datu xehakatuak jaso dira eranskinean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko martxoaren 13an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

2014ko AURREKONTUAREN KARGURA GAUZATUTAKO HOBARIAK		
UDAL ONURADUNA	XEDEA	ZENBATEKOA
Abartzuza	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	5.279,65
Ablitas	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak	3.754,77
Oibar	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak	2.745,51
Altsasu	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak	3.155,71
Altsasu	Hobariak 2012ko JEZean. Kooperatibak	121,3
Altsasu	Hobariak 2011, 2012, eta 2013ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	627,44
Altsasu	Hobariak 2012ko lurraren kontribuzioan eta JEZean. Fundazioak	5.796,85
Andosilla	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	18.627,50
Aranguren	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	28.392,65
Los Arcos	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	3.051,08
Arroitz	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	3.534,80
Artaxoa	Hobariak 2012ko JEZean. Kooperatibak	1.263,66
Azagra	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	25.305,81
Azagra	Hobariak 2014ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	25.235,23
Barasoain	Hobariak 2012ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	1.190,59
Barillas	Hobariak 2012ko eta 2013ko JEZean. Kooperatibak	692,08
Beire	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	954,24
Berbintzana	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak	821,71
Buñuel	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	6.515,39
Auritz	Hobariak 2013ko EIOZean. Uholdeak	1.470,71
Cabanillas	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak	1.929,80
Cadreita	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	2.343,50
Zarrakaztelu	Hobariak 2012ko eta 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	6.700,21
Cascante	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	8.622,02
Kaseda	Hobariak 2012ko lurraren kontribuzioan eta JEZean. Kooperatibak	3.475,75
Castejón	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Uholdeak	3.323,24
Castejón	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak	2.158,76
Cintruénigo	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan eta JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	9.600,30
Cintruénigo	Hobariak 2013ko JEZean. Fundazioak	90,16
Corella	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	2.937,90
Cortes	Hobariak 2012ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	4.777,18
Cortes	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Uholdeak	201,84
Cortes	Hobariak 2014ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	6.671,14
Cortes	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	6.702,90
Cortes	Hobariak 2012ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	6.809,42
Deikaztelu	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	879,85
Etxalar	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	338,82
Eguesibar	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	3.711,47
Eguesibar	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	17.436,80
Noain (Elortzibar)	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	17.963,84
Noain (Elortzibar)	Hobariak 2012ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	906,08
Noain (Elortzibar)	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	2.532,68
Lizarra	Hobariak 2012ko eta 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	32.111,58
Ezkabarte	Hobariak 2013ko JEZean eta lurraren kontribuzioan. Uholdeak	8.285,60

	2014ko AUREKONTUAREN KARGURA GAUZATUTAKO HOBARIAK	
Faltzes	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	912,51
Funes	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak	586,1
Fustiñana	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	4.783,37
Fustiñana	Hobariak 2014ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	4.610,64
Galar	Hobariak 2013ko JEZean. Jardueraren hasiera	3.383,07
Galar	Hobariak 2012ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	1.188,89
Galar	Hobariak 2012ko eta 2013ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	4.641,75
Gesalatz	Hobariak 2013ko JEZean. Jardueraren hasiera	15,33
Gesalatz	Hobariak 2013ko EIOZean eta lurraren kontribuzioan. Uholdeak	2.522,68
Uharte	Hobariak 2013ko EIOZean, JEZean eta lurraren kontribuzioan. Uholdeak	13.276,84
Uharte	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	3.763,74
Uharte	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	2.551,58
Uharte	Hobariak 2009-2012 bitarteko JEZean. Fundazioak	2.539,05
Lakuntza	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	28.828,21
Lakuntza	Hobariak 2014ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	29.475,30
Larraza	Hobariak 2012ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	4.893,47
Larraza	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	5.318,21
Legaria	Hobariak 2014ko JEZean. Kooperatibak	200,04
Leitza	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	2.557,64
Lesaka	Hobariak 2013ko JEZean. Jardueraren hasiera	732,97
Lesaka	Hobariak 2013ko JEZean eta lurraren kontribuzioan. Fundazioak	631,06
Lesaka	Hobariak 2014ko JEZean eta lurraren kontribuzioan. Fundazioak	640,27
Ledea	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	1.525,81
Lodosa	Hobariak 2012ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	3.688,99
Longida	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Uholdeak	100,26
Irunberri	Hobariak 2012ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	904,36
Irunberri	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	926,29
Martzilla	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	17.393,52
Mendabia	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak	1.292,50
Mendigorria	Hobariak 2011-2012 bitarteko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	1.065,37
Mendigorria	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	981,39
Miranda Arga	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak	1.674,85
Monteagudo	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	2.451,28
Otsagabia	Hobariak 2012ko EIOZean eta lurraren kontribuzioan. Uholdeak	1.242,73
Erriberri	Hobariak 2009-2012 bitarteko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	29.011,21
Erriberri	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	17.276,35
Oltza Zendea	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak	1.427,00
Oltza Zendea	Hobariak 2010-2012 bitarteko JEZean eta lurraren kontribuzioan. Uholdeak	4.583,17
Oteitza	Hobariak 2012ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	1.693,59
Iruña	Hobariak 2012ko JEZean. Jardueraren hasiera	313.572,02
Iruña	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	461.633,80
Iruña	Hobariak 2012ko JEZean eta lurraren kontribuzioan. Fundazioak	266.593,38
Azkoi	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	9.571,51
Pitillas	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	1.652,13
Ribaforada	Hobariak 2013ko JEZean. Kooperatibak	2.849,34

	2014ko AURREKONTUAREN KARGURA GAUZATUTAKO HOBARIAK	
Zare	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak	2.455,94
San Adrián	Hobariak 2013ko JEZe. Jardueraren hasiera	402,51
Zangoza	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak	2.431,22
Zangoza	Hobariak 2012ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	12.457,82
Zangoza	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	12.393,88
Sesma	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	4.545,80
Sorlada	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Kooperatibak	472,55
Tafalla	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak	37.794,48
Tutera	Hobariak 2012ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	39.054,76
Tutera	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	39.494,94
Tutera	Hobariak 2012ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	22.904,59
Tutera	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	47.454,48
Ultzama	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	502,89
Valtierra	Hobariak 2013ko lurraren kontribuzioan. Uholdeak	133,1
Viana	Hobariak 2012ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	10.426,83
Viana	Hobariak 2011ko JEZe. Fundazioak	91,44
Bidankoze	Hobariak 2012ko lurraren kontribuzioan. Uholdeak	33
Alesbes	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	4.402,12
Deierri	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	1.069,36
Burlata	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	7.353,55
Burlata	Hobariak 2013ko JEZe eta lurraren kontribuzioan. Fundazioak	1.342,02
Antsoain	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak	3.532,41
Antsoain	Hobariak 2012ko JEZe. Fundazioak	221,48
Antsoain	Hobariak 2013ko JEZe. Fundazioak	168,37
Antsoain	Hobariak 2013ko JEZe. Fundazioak	227,97
Antsoain	Hobariak 2013ko JEZe. Fundazioak	226,95
Barañain	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	2.395,54
Barañain	Hobariak 2012ko eta 2013ko lurraren kontribuzioan. Fundazioak	5.814,08
Beriain	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	310,58
Zizur Nagusia	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	2.905,89
Orkoien	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	6.411,61
Berriozar	Hobariak 2011ko eta 2012ko JEZe. Jardueraren hasiera	9.395,32
Murillo el Fruto	Hobariak 2011-2013 bitarteko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	7.452,16
Jaitz	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak	146,79
Torres del Rio	Hobariak 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	225,38
Urraulbeiti	Hobariak 2013ko JEZe. Jardueraren hasiera	520,21
Bera	Hobariak 2012ko eta 2013ko JEZe. Kooperatibak eta jardueraren hasiera	1.539,62
	GUZTIRA	1.838.922,73
OHARRA:		
Gauzatutako hobari horietako batzuk ordaindu gabe daude. Laster ordainduko dira 2014ko Aurrekontuko erresulten kargura		

Galdera, 2010ean hasitako Higiezinak berrantolatzeko Planaren hirugarren fasea bukatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2010ean hasitako Higiezinak berrantolatzeko Planaren hirugarren fasea bukatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 29ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko martxoaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2014ko abenduaren 12ko 3424 sarrera-zenbakiarekin erregistratua, Higiezinak berrantolatzeko Planari buruz (8-14/PES-0256). Galdera horri dagokionez hau erantzun du Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Higiezinaren arloko jarduketara plana egitea aurreko legegintzaldiko helburuetako bat izan zen. Plan horren bidez higiezinaren erabilera eraginkorra bermatu nahi zen, batez ere administrazio-bulegotarako higiezinena, bai eta haien optimizazioa eta alokairu kostuetan aurrezteko politika irmoaren gauzatzea ere.

Gobernuaren 2009ko ekainaren 29ko Erabakiaren bidez onetsi zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen higiezinari eta administrazio-bulegoei buruzko 2009-2011 aldirako Plana.

Higiezinaren arloko jarduketara planak honako helburu hauek zituen:

1. Ondasunen kudeaketa arrazionalizatzea eta hobetzea, haien erabilera-kostuak murriztuz eta, horrekin batera, departamentuetako administrazio-unitateak batuz.

2. Herritarren zerbitzua. Izan ere bulegoak dira zerbitzu publikoak emateko egoitzak.

3. Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen beharrak asetzea. Izan ere egoitza horietan zerbitzuan ari den kolektiboko langile kopurua, osaera eta beharrak denboran zehar aldatu egiten dira eta egoitzak etenik gabe

moldatu behar dira administrazio-unitateen eskakizunetara.

Geroago, Gobernuaren beste erabaki batzuen bidez, jarduketa plan horren hiru eranskin onetsi ziren, jarduketak 2014ko abendura arte luzatu zituztenak. Gobernuaren 2011ko ekainaren 20ko Erabakiaren bidez onetsi zen jarduketa planaren lehenengo eranskina, Gobernuaren 2014ko martxoaren 31ko Erabakiaren bidez II. eranskina, eta Gobernuaren 2014ko uztailaren 2ko Erabakiaren bidez onetsi zen III. eranskina.

Higiezinari buruzko Planean egindako jarduketak zehatz azaltzen dira txosten honi erantsitako taulan. Honako hauek jaso dira taulan:

- Plana betetzeko lekuz aldatutako administrazio-unitateak.
- Unitate horien jatorrizko kokalekuak eta behin-betikoak.
- Bi kokalekuetan okupatutako azalaren arteko konparazioa.
- Lekualdaketa egin zen eguna.
- Lekualdaketa bakoitzaren bidez errentamendu eta erkidego gastuetan lortutako aurrezpena. 2.688.169 euro aurreztu dira 2015ean.

Taulan ageri den moduan, berrogeita lau administrazio-unitate lekualdatu dira; horrenbestez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ondasun higiezinari buruzko Jarduketara Planeko aurreikuspen ia guztiak bete dira.

Azken bi ekitaldietan, aurreikusitako inbertsioei ekiteko aurrekontu faltagatik, zenbait jarduketa berraztertu edo geroratu behar izan dira eta ordezkoko konponbideak bilatu behar izan dira ukitutako administrazio-unitateen egoera ahalik eta gastu txikiena eginda hobetzeko.

Zehazki, ezin izan da burutu 2009-2011 aldirako Planeko mugimendu nagusietako bat: Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua Erakunde Autonomoaren bulego zentralak Nafarroako Foru Komunitatearen jabetzako lokal batzuetara aldatzea (Iruñeko Tuterakalea 18-20-22-24). Gaur egun alokatutako higiezinetan daude, hurrenez hurren Iruñeko Irunlarrea kaleko 39-41n eta Arcadio María Larraona kaleko 1ean.

Lokal horiek zaharberritu eta egokitzeko obrak 2011ko abenduan hasi ziren, baina amaitu gabe geratu ziren. Adjudikazioa zeukan eraikuntza enpresari kontratua deuseztatu zitzaion, obra bertan behera utzi eta hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu zuelako, eta, azkenik, 2013ko eta 2014ko aurrekontuetan ez da dirurik izan "Higiezinen Plana - Administrazio-bulegoak" izeneko kontusailan. Horiek dira obrak bukatu ezin izanaren arrazoiak.

Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuaren (hemendik aurrera O-NOZ) Irunlarrea kaleko 39-41eko bulego zentralak lekuz aldatzeko premia zegoen, ordea, eta 2014ko martxoaren 31n onetsitako II. eranskinaren bidez onartu zen O-NOZ eta Osasun Departamentua Armadaren etorbideko 2an alokatutako bulegoetara aldatzea, Tutera kaleko 18-20-22-24ko bulegoak zaharberritzeko obrei berriro ekiteko modua izan arte. Bulego berrien alokairu eta mantentze gastua O-NOZek lehengo egoitzan ordaintzen zuena baino pixka bat txikiagoa da, eta lekua, berriz, handiagoa. Hala, erakunde autonomoa eta Osasun Departamentua batera kokatu ahal izan dira eta herritarrentzako irisgarritasun baldintzak hobek dira.

Nafarroako Enplegu Zerbitzua Erakunde Autonomoari dagokionez, Higiezinei buruzko Planaren III. eranskinean aurreikusitako hura Nafarroako Foru Komunitatearen lokal batzuetara aldatzea, hain zuzen ere Tomás Caballero parkean dagoen Printzearen Gotorlekua eraikineko bigarren eta hirugarren solairuetara. Leku hori hutsik gelditu behar zen, eranskin berean onartu baitzen Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusia Sarrigurengo Cabárceno kaleko 6ra aldatzea, Nasuvinsa sozietate publikoaren bulegoetara.

Orain aztertzen ari diren jarduketak berriak hauek dira:

- Arcadio María Larraona kaleko enplegu bulego lekuz aldatzea. Gaur egun alokairuan dago eta Nafarroako Foru Komunitatearen lokal batzuetara eraman nahi da, Iruñeko Puiko Ama Birji-

naren kaleko 1-3ra. Exekuzio proiektua 2015eko ekitaldian eginen da.

- Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzua eta Osasun Departamentua Tutera kaleko 18, 20, 22 eta 24ko lokaletara aldatzea. Nafarroako Foru Komunitatearen lokal horiek zaharberritzeko obra amaitu gabe dago.

Nafarroako Gobernuak higiezinen errentamendua dela-eta 2001etik 2014ra bitartean ordainduta-ko gastuak beheko taulan ageri dira. Departamentuek emandako informaziotik ateratako datuak dira. Ezin izan da 2000. urteko errentamendu datu-rik lortu, Foru Komunitateko Administrazioak gastuak dokumentatzeko erabiltzen duen aplikazio informatikoa 2001. urtean jarri zelako abian.

Urtea	Zenbatekoa, guztira
2001	2.078.445 €
2002	1.993.227 €
2003	2.089.807 €
2004	2.286.104 €
2005	2.537.434 €
2006	3.452.837 €
2007	3.717.314 €
2008	3.860.645 €
2009	3.590.821 €
2010	2.808.053 €
2011	1.717.802 €
2012	1.519.374 €
2013	1.287.209 €
2014	1.205.006 €

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko martxoaren 11n

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu-ko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentariaren eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

Galdera, jakitekoa ea zer urrats egin diren Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betearazte aldera; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernua premiatu zuena akordio bat lor zezan Nafarroan kokatutako finantza-entitateekin, haien jabetzako etxebizitzak etxegabetzeek ukitutako pertsoneri eta familiei alokairu sozialeko araubidean emateko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea zer urrats egin diren Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betearazte aldera; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernua premiatu zuena akordio bat lor zezan Nafarroan kokatutako finantza-entitateekin, haien jabetzako etxebizitzak etxegabetzeek ukitutako pertsoneri eta familiei alokairu sozialeko araubidean emateko. Galdera argitaratu zen 2015eko otsailaren 20ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko martxoaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak informazioa eskatu du jakiteko ea zer zuzemen eta jarduketa egin diren, datak zehaztuta, Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betearazte aldera; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernua premiatu zuena akordio bat lor zezan Nafarroan kokatutako finantza-entitateekin, haien jabetzako etxebizitzak etxegabetzeek ukitutako pertsoneri eta familiei alokairu sozialeko araubidean emateko (PES-13). Galdera horri dagokionez, Sustapen Departamentuak hau adierazi du:

Nafarroako Gobernua bitarte honetan guztian erabat jakitun izan da etxegabetzeek eragindako pertsoneri eta familiei lagundu beharraz. Arrazoi horregatik, asko izan dira hainbat eragilerekin eta hainbat esparrutan egin diren kudeaketak. Jarraian horien xehetasunak azalduko zaizkizue.

FINANTZA-ENTITATEEKIKO KOMUNIKAZIOAK

2013KO APIRILAREN 18KO BILERARA DEITZEKO 2013KO MARTXOAREN 21EAN BIDLITAKO GUTUNA

Kontseilariak sinatutako gutuna bidali zitzaion Caixa, Banco Popular, Sabadell, BBVA, Rural Kutxa, Bankia, Euskadiko Kutxa, Catalunya Caixa, Santander, Banco Valencia, Ibercaja, Caja Espa-

ña, Kutxabank, Bankinter, Barclays eta Deutsche Bank entitateei.

Martxoaren 21ean bidalitako gutun horretan dei egin zitzaion bilera egiteko 2013ko apirilaren 18an Nafarroako Artxibo Nagusian, gure Komunitateko etxegabetzeen inguruko benetako arazoei buruz hitz egiteko, eta eskatu zitzaion, gainera, alde aurretik informazioa eman zezatela, ea banku entitateek zer neurri eta irizpide aplikatzen zituzten hipoteka betearazteko demanda bideratu aurretik, hipotekak ordaintzen ez ziren kasuetan (1. dokumentu erantsia).

Ez zen aurretiazko erantzunik jaso, baina deitutako guztiak agertu ziren apirilaren 18ko bilera-ra: Caixa, Banco Popular, Banco Sabadell, BBVA, Rural

Kutxa, Bankia, Euskadiko Kutxa, Catalunya Caixa, Santander, Ibercaja, Caja España, Kutxabank, Bankinter eta Barclays.

Bilera hartan, finantza-entitateen ordezkariak etxegabetzeen drama soziala saiheste aldera orduan egiten ari ziren jarduketan berri eman zioten kontseilariari. Neurri horien artean hauek nabarmentzen ziren: birfinantzatzea, zorraren berregituratze bideragarria (hilabete batzuetan ordain ez dadin onartzea, hilean ordaindu beharreko zenbatekoa edo interesa jaitea etab.), kita egitea, etxea ordainetan ematea, edo hipoteka malgutzea, kuota bezeroaren ordainketa-ahalmenari egokitzuz. Denek esan zuten saiatzen zirela, ahal zen neurrian, hipoteka betearazteraino ez iristen (2. dokumentu erantsia).

2013KO EKAINAREN 14AN BIDLITAKO GUTUNA

Berrito eskatu zitzaion laguntza finantza-entitate guztiei. Apirilaren 18ko jardunaldian ondorio hau atera zen, besteak beste: egoerei aurrea hartzea eta Nafarroako egoerari buruzko datu estatistiko zehatzak ematea onuragarria izanen zela ukitutako alderdi guztientzat. Horregatik, datu horiek eskura edukitzeko beharra azpimarratu zitzaion eta hiru hilean behingo informazioa eskatzeko orria erantsi zitzaion.

Caixa, Banco Popular, Sabadell, BBVA, Rural Kutxa, Bankia, Euskadiko Kutxa, Catalunya Caixa, Santander, Banco Valencia, Ibercaja, Caja España, Kutxabank, Bankinter, Barclays eta Deutsche Bank entitateei bidali zitzaizen komunikazio hori.

Hona eskaerari emandako erantzunak:

– Caixa: adierazi zuten jada bazituztela beste-lako neurriak eta bazutela beren etxebizitza funts soziala, Servihabitat-ek kudeatua.

– Popular: adierazi zuten ezinezkoa izanen zela datuak epe laburrean bidaltzea, departamentu desberdinetatik bidali behar zituztelako.

– Euskadiko Kutxa: esan zuten tamalez ezin zutela egin eskatutakoa. Legez informazioa eman behar dieten estamentuei bakarrik ematen dietela informazioa, Espainiako Bankuari hain zuten.

– BBVA: esan zuten ez zutela informaziorik bidaliko eta Espainiako Bankuari soilik ematen zizkiotela horrelako datuak.

– Santander: eskatutako informazioa bidali zuten.

– Rural Kutxa: eskatutako informazioa bidali zuten.

2013ko EKAINAREN 24A. CIVICAN JARDUNALDIA

Gizarte Politiketako eta Sustapeneko departamentuek antolatu zuten jardunaldi hori, finantza-entitateei eskatzeko bat egin zezatela hipoteka arloko jardunbide onen kodearekin. Justizia, zuzenbide eta ekonomia arloetako profesionalak, alderdi politikoen ordezkariak, finantza-entitateetako zuzendariek eta Foru Gobernuak ordezkariak parte hartu zuten jardunaldian.

2014ko IRAILAREN 16A. BILERA SAREBEKIN MADRILEN

Sareb-ek eta Kataluniako Generalitateak alokairu araubideko etxebizitzak aldi baterako lagatzeko akordioa egin zutela ikusirik, Sustapeneko kontseilariak Foru Komunitatean antzeko akordioa sinatzeko aukerari buruzko informazioa eskatu zuten.

Bilera hartan SAREB prest agertu zen Kataluniako Generalitatearekin sinatutakoak bezalako ezaugarriak izanen zituen hitzarmena egiteko. Gero baldintza horien kopia igorri zitzaion Nafarroako Gobernuari.

Gai horrek balizko akordiorako zabalik segitzen badu ere, SAREBek alokairua ordaintzeko ezarri zituen baldintzak ez datoz bat Nafarroako Gobernuak bere Etxebizitza Sozialerako Foru Funtsean

ezarri dituen prezioekin. Beraz, oraingoz ez da hitzarmenik egiteko urratsik egin.

2014ko URRIA: ETXEBIZITZA SOZIALERAKO FORU FUNTSAREN AURKEZPENA

Zenbait bilera egin ziren Etxebizitza Sozialerako Foru Funtsa sortzeko proiektua aurkezteko. Nafarroan errolatuta egon eta ez etxebizitza librerik ez babesturik ezin lortu duten adin nagusiko pertsonak dira hartzaileak, egoera hauetako bat bizi badute: etxebizitza galtzea hipoteka-betearazpenaren ondorioz, edo galtzeko arriskua izatea negoziatzeko ohiko prozedurak agortu ondoren; norbera bizi den etxebizitzan integritate fisikoa edo psikologikoa arriskuan izatea; edo gizarteratze prozesu baten azken etapetan den pertsona edo familia izan eta tutoretzapeko edo gainbegiraturako etxebizitza batean bizi izatea.

Programa pilotu horren onuradunek konpromisoa hartu behar dute Gizarte Politikak diseinatutako programa batean sartzeko, zeinak lagunduko baitie epe horretan beharrezko autonomia pertsonala/familiarra eta ekonomikoa lortzen, sostengu sozialetik askatu eta beste etxebizitza batean sartzeko modukoa.

Alokairuaren prezioa 150 euro da, eta Adsis-Santa Lucía entitateak (programaren kudeatzailea) kobratzen die maizterrei. Errentamendu kontratua gehienez 3 urterako izan daiteke. E

Etxebizitza Sozialerako Foru Funts hori finantza-entitateei aurkezteko bilerak Sustapen Departamentuan egin ziren urriaren 20tik 24ra bitarteko astean. Entitate hauek agertu ziren:

- La Caixa
- BBVA.
- Rurak Kuxa.
- Euskadiko Kutxa.
- Banco Santander.

Aipatutako bileren helburua izan zen entitate horiei eskatzea Etxebizitza Sozialerako Foru Funtsean parte har zezatela.

2014ko AZAROAREN 10eko GUTUNA, finantza-entitateei zuzendua (La Caixa, Popular, Sabadell, BBVA, Rural Kutxa, Bankia, Euskadiko Kutxa, Catalunya Caixa, Santander, Ibercaja, Caja España, Kutxabank, Bankinter, Barclays eta Deutsche Bank). Esan zitzaizen Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Sozialerako Foru Funtsa arautzeko foru agindua onetsiko zuela, eta parte hartzera bultzatu zitzaizen (3. dokumentu erantsia).

Haietatik guztietatik, Kutxabank, Sabadell eta Rural Kutxak erantzun zuten.

Kutxabank: aktibo higiezinak saldu zituzten abenduan itxitako eragiketa korporatibo batean eta ez zeukaten lagatzeko moduko etxebizitzarik Foru Komunitatean.

Sabadell: berak ere uste du horrelako ekime-nak garrantzitsuak direla, eta bere egin du Ban-kuen Jardunbide Onen Kodea. Etxebizitza Funts Soziala (Estatukoa) sortu zuten entitateetako bat da, eta 400 etxebizitza jarri ditu. Ez du etxegabe-tze bat ere burutu eta bi alokairu sozial negoziatu ditu Nafarroan. Oraingoz ez daukate aurreikusita berariazko beste hitzarmen batzuei atxikitzea.

Rural Kutxa: laguntzeko prest zegoela eta elkarlanean aritu nahi zuela berretsi zuen. Hasiera batean 4 etxebizitza aipatu ziren, Iruñean, Tuteran eta Agoitzen kokatuak. Zehaztasun gehiagoren zain gaude, laster zerbait sinatu ahal izanen dugu-lakoan.

BILERA RURAL KUTXAREKIN, 2015EKO MAR-TXOAREN 9AN

Entitate horrek zenbait higiezin laga zitzakeela adierazteko gutuna bidali ondoren, bilera egin zen Sustapen Departamentuan, laster Etxebizitza Sozialerako Foru Funtserako laga zitezkeen e-txebizitza horien xehetasunak ikusteko.

KOMUNIKAZIOAK HIPOTEKAK ERAGINDAKO PLATA-FORMEKIN, finantza-entitateen egiazko portaera ikusteko

Bestalde, Nafarroan honelako arazoak dituzten pertsonekin banku entitateak nola portatzen diren aztertzen ere saiatu gara. Helburu horrekin, Sustapen Departamentuak bilera batzuk antolatu ditu hipotekak eragindakoen plataformen ordezkari-ekin, beren esperientzien berri eman ziezaguten. Bilerak 2013ko apirilaren 19an eta 2013ko aben-duaren 11n egin ziren, eta Berriozarko, Iruñeko, Burlatako, Tafallako, Erriberako eta Sanduzelaiko hipotekak eragindakoen plataformetako kideek parte hartu zuten.

NAFARROAKO GOBERNUKO HIPOTEKETARAKO BITARTEKOTZA ZERBITZUA

Gizarte Politiketako Departamentuaren menpe-ko zerbitzu hori 2012ko urriaren 24an sortu zen.

Entitate horrek familia unitatearen egoera eko-nomikoa aztertzen du eta banku entitatearengana jotzen du zorra kitatzeko aukerak negoziatzera.

Sortu zenetik orain arte egindako jarduera:

- Arreta jaso duten pertsonak: 859

- Izapidetutako espedienteak: 459

• Espediente berriak (2014ko azarotik 2015eko martxora arte): 24

- Espediente aktiboak: 88

- Etxetik botatzeak: 0

ETXEGABETZEEI ARRETA EMATEKO BATZORDEAN HARTUTAKO NEURRIAK

Etxegabetzei Arreta Emateko Batzordea 2013ko otsailean sortu zen, departamentu arteko lankidetzaren bitartez zeharkako konponbideak eskaintzen saiatzeko horrelako arazoak dituztenei. Kontsumoaren eta gizarte politiken, etxebizitzaren, ekonomia eta ogasunaren eta justiziaren arloetako arduradunek parte hartzen dute batzordean, bai eta Udalerrri eta Kontzejuen Federazioak ere. Horrela ekintza integrala lortu nahi da kontuan hartu beharreko alderdi asko dituen arazo konple-xu horren aurrean.

Batzordeak onartu eta sustatutako neurri mul-tzoen barruan, zenbait neurri hartu dira finantza-entitateek alokairu sozialera bideratu ahal izan dezaten beren bizitegitarako ondare higiezina:

1. Jarduketa Babesgarri buruzko Dekretuko araudia aldatzea, bederatzigarren xedapen gehi-garria erantsiz, "Etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza ematea Hipoteka-zordunak babesteko presako neurri buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuan azaldutako egoeretan" ize-nekoa, halako moduan non beren etxebizitza ordainetan eman duten jabeek, Baliabiderik ez duten hipoteka-zordunak babesteko presako neu-rriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuan azaldutako egoeretan, etxebizitza bere-an maizter geratzen badira, Nafarroan indarra duten alokairurako diru-laguntzak jasotzeko esku-bidea izanen baitute. Neurri horrek 2014ko aben-duaren 31ra arte izan du indarra.

2. Bidea eman da etxebizitzak alokatzeko Nafa-rroako Gobernuaren bitartekotza poltsan, zeina NASUVINSA enpresa publikoak kudeatzen baitu, hipoteka kredituen ordainez, hipoteka-subroga-zioarekiko salerosketaren bidez edo antzeko nego-zio juridikoen bidez pertsona juridikoek eskuratu-tako etxebizitzak sartu ahal izan daitezen, Lurraldearen Antolamendu, Mugikortasun eta E-txebizitzako zuzendari nagusiaren otsailaren 17ko 275/2014 Ebazpenean adierazitako udalerrietan eta baldintzetan. Etxebizitza horiek etxebizitza babestuen parekoak dira, alokairurako diru-lagun-tzak jasotzeko eskubideari dagokionez, ezarritako bideetatik haiek eskuratzen dituzten maizterren-tzat.

3. Bestalde, 2014ko abenduaren 16an sortu zen Etxebizitza Sozialerako Foru Funtza. Ohiko etxebizitza galtzeagatik gizartetik baztertuta izateko arriskuan egon eta babes publikoa behar dutenei laguntzea du helburu. Funts horretan sar daitezke, besteak beste, finantza-entitateek edo kreditukoek, haien mendeko higiezin agentziek eta aktiboak (bankuen berregituratzearen ondoriozkoak barne) kudeatzen dituzten entitateek jartzen dituzten etxebizitzak. Guztira 34 etxebizitzak osatzen dute funtsa. Foru agindu batek arautzen du. Etxebizitza horietatik, Nasuvinak 21 jarri ditu eta Udalak 13. Alokairuaren prezioa 150 euro inguru da, eta Adsis-Santa Lucía entitateak

(proiektuaren kudeatzailea) kobratuko die maizterrei. Errentamendu kontratua gehienez ere 3

urterako izanen da. Programa horren onuradunek konpromisoa hartuko dute, gainera, Gizarte Politikak diseinatutako programa batean sartzeko, zeinak lagunduko baitie epe horretan beharrezko autonomia pertsonala/familiarra eta ekonomikoa lortzen, sostengu sozialetik askatu eta beste etxebizitza batean sartzeko modukoa. Espero da 2016an etxebizitza gehiago sartu ahal izatea Etxebizitza Sozialerako Foru Funtsean.

Iruñean, 2015eko martxoaren 6an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

Galdera, Santo Domingo egoitzan eskabideen ebaluazioa gerarazteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Santo Domingo egoitzan eskabideen ebaluazioa gerarazteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko otsailaren 27ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Santo Domingo egoitzan egoitza-arretarako geriatría-profil balioduna duten pertsonen eskabideen ebaluazioa gerarazteari buruz (8-15/PES- 00016). Hau da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

1. Zer arrazoi daude egoitza-arretarako geriatría-profil balioduna duten pertsonen eskabideei buruzko ebaluazioa gerarazi izateko Santo Domingo egoitzan?

Parlamentari eskatzailea, Nafarroako Parlamentuko beste kide batzuk bezala, Lizarrako

Santo Domingo egoitza kokatuta dagoen eraikina baldintzak ezagutzera joan da duela gutxi.

Guztiek egiaztatu ahal izan dute 3. eta 4. solairuek ez dituztela biltzen adinekoak artatzeko baldintzarik onenak, mendekotasuna duten adinekoak izan zein ez; horregatik, Agentzian zentro horri buruzko erabakiak hartzen direnean kontu handiz jokatzeko da, erabakiek erabilzaila eta langileengan ahalik eta eragin txikiena izan dezaten.

Orain saiatzen ari gara ospitale-farmazia ezartzeko proiektua abian jartzen Nafarroako Gobernuak Lizarran dituen bi zentroetan (Santo Domingo eta Oncineda). Izan ere, bai Osasun Departamentuak bai Gizarte Politiketako Departamentuak uste dute proiektu horrek gure erabilzailentzako farmazia arretaren kalitatea hobetuko duela, foru kutxetarako aurrezpen garrantzitsua ekarriko duela eta, gainera, Santo Domingo eta Oncineda zentroetako erabilzailentzat desagertu egingen dela botiken ordainketa partekatua.

Proiektua abiarazi ahal izateko aldaketak egin behar dira zentroyen antolaketa eta funtzionamenduan (erizain, laguntzaile eta gizarte langileen lanaren antolaketa...). Hori dela eta, zentroan bizi diren pertsonen ahalik eta eragozpen gutxien sortu nahian, erabaki da "behin-behinean" sarrera gehiago ez egitea, proiektu horretarako egokitzapena errazte aldera.

Gainera, gai honetan sakonduz, behinola adierazi zitzaizuen bezala, Santo Domingo zentroak mendekotasunik gabeko pertsonak bakarrik arta ditzake sarreren bidez, eta jakinarazi behar dizugu, bestalde, profil horri dagokionez eskaria ez dela handia.

2. Aurreikusita al dago aurreko puntuan adierazitako ebaluazioak egiten jarraitzea, Santo Domingo egoitzaren erabileran optimizazio-maila berreskuratu arte?

Aipatu dugun moduan, erabiltzaile gehiago ez sartzeko erabakia aldi baterakoa da. Behin proiektua ezarrita dagoenean, mendekotasunik gabeko eta gizarte mendekotasuneko eskariaren arabera, sarrerekin jarraituko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko martxoaren 18an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Santo Domingo egoitzan erabiltzaileak onartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Santo Domingo egoitzan erabiltzaileak onartzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko otsailaren 27ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Lizarrako Santo Domingo egoitzaren gaineko zenbait argibide eskatzeko (8-15/PES- 00017). Hau da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

1. Gizarte Politiketako Departamentuak jarraitu behar al du mendetasun sozialaren profilari eta egoitza-arretarako geriatría-profil baliodunari eusten Lizarrako Santo Domingo egoitzan erabiltzaileak onartzeko garaian?

Parlamentariak egin berri duten bisitan egiaztatuta ahal izan dutenez, Santo Domingo egoitza ez dago prestaturik mendekotasuna duten pertsonen sarrerak onartu ahal izateko, horretarako egokitutako solairu bakarra dagoelako eta beti dagoelako beteta, jada egoitzan bizi diren erabiltzaileen zahartze eta okerragotzearen ondorioz.

Horrenbestez, mendekotasunik gabeko pertsonak eta mendekotasun soziala dutenak bakarrik onar ditzakegu.

2. Gizarte Politiketako Departamentuak, egoitza-arreta geriatríkoaren esparruko eskariaren arabera, aurreikusia al du egun Lizarrako Santo Domingo egoitzan dauden erabiltzaileen kopurua handitzea?

Erabiltzaileen kopuruak gora eta behera egiten du, betiere eskariaren arabera, eta, jada aurreratu dizugunez, eskaria ez da oso handia mendekotasun sozialaren eta mendekotasunik ezaren kasuan.

3. Gaur egun itxaron-zerrendarik ba al dago Lizarrako San Jeronimo egoitzako 14 toki itunduak betetzeko?

Gaur egun Lizarraldean mendekotasuna duten 6 pertsona daude etxean, egoitzako tokiaren zain (espedienteen izapideak eta eskatutako dokumentazioa amaituta daude). Dakizunez, Lizarraldea lurralde zabala da (ez dira guztiak Lizarrakoak), eta bakoitza bere herritik hurbilen dagoen egoitzara joanen da. Sei pertsona horiek inoiz ez lirasteke izanen Santo Domingon sartzeko hautagaiak, mendekotasuna dutelako.

Lizarran eta eskualdean ugariak dira toki itunduak dituzten egoitzak. Beraz, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziako itxarotzerrendaren xede bakarra ez da San Jeronimo.

4. Ohiko bizitokia Lizarran zuen pertsonarik bideratua izan al da toki itunduak dauzkaten beste zentro batzuetara?

Funtsean, inoiz ez da horrelakorik egiten. Lizarran badira toki itunduak dituzten bi zentro, San Jeronimo eta Luz de Estella, mendekotasuneko eskariari erantzuteko. Inoiz Lizarrako biztanleren bat inguruko herri bateko egoitza-toki itundu batean sartuko balitz, aldagai oso zehatzen ondorio izanen litzateke.

Adibidea: gerta liteke presako kasuren bat inguruko herri batera eramatea, ez dagoelako toki

hutsik Lizarran; baina toki bat husten den unean Lizarrara aldatzeko aginduekin sartuko da kanpoko egoitza horretan. Beste arrazoi bat familiaren nahia izan liteke.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko martxoaren 18an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Nafarroako Gobernuaren jokaerari buruzkoa, Artederretan (Unzue) aurkitutako hamar eskeletoei dagokienez, 1809an inguru horretan fusilaturiko armada napoleonikoko artilleria-soldaduenak izan baitaitezke.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren jokaerari buruzkoa, Artederretan (Unzue) aurkitutako hamar eskeletoei dagokienez, 1809an inguru horretan fusilaturiko armada napoleonikoko artilleria-soldaduenak izan baitaitezke. Galdera argitaratu zen 2015eko otsailaren 13ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakitekoa zer egin duen Gobernuak Artederretan aurkitutako eskeletoei dagokienez (PES-00009). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusiko Arkeologia Atalak indusketa arkeologikoa sustatu du, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuak aurkikuntzaren berri eman ondoren. Presako indusketa izan da, Nafarroako Kultura Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legearen 58.2 artikuluekin bat etorritik, eta Unzueko ur hornidura konpontzeko obrek eragin dute. Hondar arkeologikoak Nafarroako Gobernuaren Arkeologia Funtsetan gordailutu dira eta han daude zaintzapean.

Esku hartzearen kostua 10.630 eurokoa izan da guztira, landa-lana eta txostena barne. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren A20001 A2120 2269 337400 ("Arkeologia kanpaina propioak eta aztarnategien mantentzea") kontusailari egotzi zaio gastua

Kultura Zuzendaritza Nagusiak presako esku hartzeak egiten ditu jabari publikoko ondasun arkeologikoen gainean, edozein izanda ere horien izaera eta garaia. Programatutako esku hartze arkeologikoak urteroko indusketa planean onesten dira.

Artederretan orain arte lurpetik atera diren hondakinak fusilatutako pertsonenak diren zantzurik ez dago, gaurkoz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko martxoaren

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako osasun garraioaren plan berriaren aurkezpen publikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako osasun garraioaren plan berriaren aurkezpen publikoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 6ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du: "Noizko du aurreikusia kontseilariak iragarritako Nafarroako osasun garraioaren plan berriaren aurkezpen publikoa?" (8-15-PES-00019). Hona Nafarroako

Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Tuterako eta Zangozako barrutietan osasun garraioaren zerbitzua emateari lotutako inguruabarrak zirela eta, 2014aren amaieran bi barrutietan zerbitzua lizitatu beharra sortu zen. Espedientea prestatzeko eta izapidetzeko lanen ondorioz, plan berria prestatzeko lanak moteldu egin dira, lehentasunezko zatik jo baita zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzea, plan berria aurkezteko epea betetzearen gaineratik. Inguruabar hori kontuan harturik, plan berria apirilera amaitzea aurreikusten da. Planaren jendaurreko aurkezpena, ordea, Hauteskunde Batzorde Zentralak ezarritakoaren mende dago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko martxoaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, osasun garraioko zerbitzuaren plan integral berriaren araberako lizitazio-lehiaketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, osasun garraioko zerbitzuaren plan integral berriaren araberako lizitazio-lehiaketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 6ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du: "Noizko aurreikusi du Osasunbideak osasun garraioko zerbitzuaren plan integral berriaren araberako lizitazio-lehiaketak deitzea?" (8-15-PES-

00020). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun lizitazio prozesuan dago Tuterako eta Zangozako barrutietako kontratazioa, eta horren baldintza-agirietan jada sartu dira hobekuntza batzuk Nafarroako Osasun Garraioaren Plan berriaren ere jasoko direnak.

Gainerako barrutietako lizitazioa kontratuen egungo indarraldiaren araberakoa izanen da. Hala ere, lizitazioak egin ahal izan arte, Osasun Departamentua saiatuko da plan berriko neurriak egungo kontratuetan sartzen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko martxoaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egingen duen Nafarroaren iparraldeko arroetan eskuragarri dagoen informazioaren kalitatea eta azkartasuna hobetzeko, balizko uholdeen arriskuak eta larritasuna aurreikuste aldera.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egingen duen Nafarroaren iparraldeko arroetan eskuragarri dagoen informazioaren kalitatea eta azkartasuna hobetzeko, balizko uholdeen arriskuak eta larritasuna aurreikuste aldera. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 13ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egingen duen Nafarroaren iparraldeko arroetan eskuragarri dagoen informazioaren kalitatea eta azkartasuna hobetzeko, balizko uholdeen arriskuak eta larritasuna aurreikuste aldera (8/15-PES-00023). Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

1. Nafarroako Gobernuaren ustez, beharrezkoa al da Baztan-Bidasoa, Añarbe-Urumea eta Leitzaran-Oria ibaietako arroetan bertan jarduketak egitea informazio gehiago,

zehatzagoa eta berehalakoagoa edukitze aldera une bakoitzean gertatzen diren euri-mailei dagokienez?

Lehenik, bereizi egin behar dira, batetik, euri alertak, iragarpen meteorologikoak egiteko eskumena duten erakundeek, esate baterako AEME-Tek, ematen dituztenak, eta bestetik uholde arriskuaren alertak, iragarpen hidrológicoak egiteko eskumena duten erakundeek, esate baterako Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, ematen dituztenak. Lehenengoak euri alerta orokorrak dira eta ez dute zertan egon ur emarien sorrerari loturik. Beraz, ez dute berekin ekartzen uholde arriskuaren abisurik. Bigarren kasuan, eguraldi iragarpenek elikatutako eredu hidrológicoak baliaturik, uholde aurreikuspenen alertak sortzen dira, bai, baina emarietan oinarrituta daude eta ez prezipitazioetan.

Iragarpenak alde batera utzi eta denbora erreparari erreparatzen badiogu, ez da ohikoa uholde arriskuaren abisua ematea prezipitazioetan oinarrituta, zenbait arrazoiengatik, eta horien artean hiru arrazoi nabarmentzen dira:

1. Euria izugarri aldakorra da leku batetik bestera eta estazio automatikoen sareak, denik eta onena izanda ere, gutxieneko laginketa baino ezin du egin, arroan ukitutako azalera guztien aldean. Kantauriko arroetako estazio automatikoen azterketak baieztapen hori berresten du.

2. Ez dago erlazio unibokorik eurien birgertatze-aldiaren eta emarien birgertatze-aldiaren artean, erlazio horri aldakortasun handia ematen diotelako, beste faktore batzuen artean, alde aurreko hezetasun baldintzek edo euriak arro hidrografikoan duen banaketak.

3. Hidrologiako "kontzentrazio aldia" kontzeptua dela medio, ezin da ekaitzaren iraupenari eta euri kopuruari buruzko alerta bakarra eman, aitzitik, herri edo azpiegitura bakoitzak eduki beharko lituzke iraupenaren eta kopuruaren arabera bere alertak, eta horretarako bakoitzak bere sare meteorologikoa diseinatu beharko luke.

Besteak beste, faktore horiek bultzatu dituzte administrazioak, tartean Nafarroako Gobernuak eta konfederazio hidrografikoak, datu meteorologiko hutsetan oinarritutako uholde alertarik ez ematera.

Uholdeen aurrealerta eta alerta abisurik fidagarrienak ibilguetako mailari eta emariari buruzko datuen bitartez egiten dira. Bestalde, teknikari kualifikatuaren azterketaren ondoren, denbora errealeko datu meteorologikoak izugarri interesgarriak dira aurrealertari aurrea hartzeko eta, behin aurrealerta edo alerta mailaraino iritsita, une jakin batean

iragarri ahal izateko urak behera eginen duen ala gora egiten jarraituko duen.

Aurreko guztia esanda, eta adierazitako ñabardurekin, esan daiteke badagoela hobekuntzarako tartea uholdeen sorrerari lotutako prezipitazioen inguruko datuen bilketaren eta azterketaren arloan.

2. Horri buruzko jarduketaren bat aurreikusi al da?

Ahalegina egin da eta egiten ari da denbora errealeko datuak biltzen dituen sarea indartzearen, eta horren emaitza dira 2013an ezarritako bi estazio meteorologiko berriak: Larrategainekoa, Beran, eta Eltzaburukoa.

Aurreikusita dago euriak detektatzeko estazio gehiago jartzea ibaiburuetan, adibidez Baztan ibaian.

Uholdeei aurrea hartzeko erabakietarako laguntza sistema (ELS) batean lan egiten ari da, estazio meteorologikoetako denbora errealeko datuak nahastuz Eurien Radarraren datuekin eta balizko eredu hidrológico batekin. ELS horren xedea da uholdeei aurrea hartzea kontzentrazioaldi laburra (12 ordu baino gutxiago) eta, ondorioz, erantzuteko denbora laburra duten arroetan, esate baterako Iruñerrian edo Baztan ibaiaren goiburuan. Nafarroako Gobernuaren asmoa da Europako proiektu bat prestatzea 2015ean, jarduketak kofinantzatu ahal izateko, deusetan ukatu gabe, halakorik lortzen ez bada, Nafarroako Gobernuak finantzaketa osoari aurre egiteko aukera.

3. Lankidetzan ari al zarete arlo horretan ukitutako beste administrazio batzuekin –Iparaldeko Konfederazio Hidrografikoa, Eusko Jaurlaritza–? Nola?

Nafarroak meteorologiako eskumenak ditu, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.4 artikulua arabera.

Estatuak ere baditu eskumenak. Beraz, Nafarroako Foru Aldundiaren eta Meteorologia Institutu Nazionalaren (AEMET) arteko lankidetzak akordioa egin zen 1970ean, eta berri 1999ko abenduaren 3an. Akordio horren bidez informazioa trukatzeko dute eta jarduketak elkarren artean banatzen dituzte.

Halaber lankidetzak esparruak ezarri dira Ebroko eta Kantauriko konfederazio hidrografikoekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Errioxako Gobernuarekin eta abarrekoekin.

Hainbat udalekin batera lan egiten ari da, azkenik, uholde arriskuaren prebentziorako Babes Zibi-

leko Udal Planaren ezarpenean aholku emateko. Azken adibidea Baztango Udalarena dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko apirilaren 9an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Club Atlético Osasuna-ren irregulartasunei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Club Atlético Osasuna-ren irregulartasunei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko otsailaren 27ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2015eko otsailaren 18ko 399 sarrera-zenbakia duena (8-15/PES-00015). Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Aurkeztutako galderan aipatzen den garaian Nafarroako Gobernuak ez zuen inolako berririk Club Atlético Osasuna-ko kideek ustez egindako irregulartasunei buruz. Klubaren kontuei azken urteetan egindako urteko auditoriak ezagutzen zituen Nafarroako Gobernuak, eta haietan ez zen ageri ikertzen ari diren ustezko egitateekin lotutako garrantzizko daturik. Nafarroako Gobernuak bazekien Kirol Kontseilu Gorenak auditoria egin zuela eta haren formulazioan ez zegoela balizko irregulartasunen inolako zantzurik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko apirilaren 7an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria, Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Falciani zerrendari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Falciani zerrendari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 6ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 1an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak idatziz erantzuteko galdera egin zuen 2015eko otsailaren 25ean, 496. sarrera-zenbakia duena erregistroan (8-15/PES-0018), "Falciani zerrenda" delakoan agertzen diren zergadunei buruzko zenbait alderdiren ganean. Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Lehenbiziko hiru galderei dagokienez: Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Zerga Ogasunak, badu "Falciani zerrenda"ren berri, espainiar gobernuak "Falciani zerrenda"ko informazioa helarazi ziolako Nafarroako Zerga Ogasunari. Zerrenda horretan 11 nafar zergadun ageri dira.

Laugarren galderari dagokionez, Nafarroako Zerga Ogasunak egin ditu, bai, ikuskapenak, "Falciani zerrenda" delakoan jasota ageri diren zergadunen ganean. Honako ikuskapenak, hain zuzen ere:

1.- 2010-06-15ean zenbait informazio eta dokumentazio jaso zen, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak igorrita, helbide fiskala Nafarroan zeukaten pertsona fisiko ziren 11 zergaduni buruzkoa, zeinek, ustez, HSBC Private Bank Suisse finantza-entitateko zenbait banku-konturekin zerikusia baitzeukaten. Informazioa 2005 eta 2006ko datu ekonomiko batzuei buruzkoa zen.

Jasotako informazioa honakoez osatuta zegoen:

a) Halako zergadunen zerrenda non, helbidea Nafarroan izanik, HSBC finantza-entitatean irekitako kontu korronteen balizko titular izateari buruzko informazioa baitzegoen.

b) Excel fitxategiak –zergadunka individualizatuak–, aipaturiko finantza-entitateari zegokionez

nafar zergadun bakoitzak zeukan egoeraren laburpen bat jasotzen zutenak (bezeroaren identifikazio- eta kontaktu-datuak, HSBCrekin ustez kontraturiko finantza-produktuei buruzko informazioa, hala nola saldoak, irekitze-datak, itxierak eta nafar zergadunaren eta kasuko finantza-produktuaren arteko lotura-mota –onuraduna, ahalduna, titularra eta abar–).

c) Barne-laneko zenbait agiri (informazioaren jatorria, aktuarioentzako jardun-irizpideak, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak erabilitako errekerimendu-eredua,...).

2.- Informazio guztia aztertu ondoren, ikuskapen-planean kargatu zen eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziak helarazitako zerrenda horretako zergadun guztiei ikuskapena egiteko prozedurari ekin zitzaion.

Aipaturiko espedienteen emaitzak honakoak izan ziren:

– Zergadun bati ustezko delitu fiskalagatiko salaketa jarri zitzaion.

– Zazpi zergaduni ikuskapen-aktak eta zerga-arloko arau-hausteagatiko zehapen-espedienteak ireki zitzaizkien. Espediente horiek amaitu ziren zerga-zorrak deskubritzearekin, bai eta zerga-arloko araudiak ezartzen dituen zehapenak ezarztearekin ere.

– Hiru zergadunen kasuan, ikuskapen-espediente txosten batekin burutu zen, zeinetan ondorioztatzen baitzen aipaturiko zergadunek ez zeukatela, ekitaldi ikuskatuetan, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak bidalitako dokumentazioan jasotako HSBCko banku-kontuen titular edo onuradun ("beneficial owners") izaerarik.

3.-Fitxategi berri bat jaso zen Zerga Administrazioako Estatu Agentzietatik 2013-06-11n, ustez HSBCrekin harremana zeukaten zergadunen zerrenda bat jasotzen zuena. Informazioak 2006, 2007 eta 2008ko datu ekonomiko batzuei buruzkoa zen, nahiz eta Nafarroan helbidea zeukan zergadun bakarrari zegokionez izan muntadun. Informazioaren gainerakoa, edo 2010-06-15eko lehen bidalkinean jaso zen, edo egoitza Nafarroan ez zeukaten zergadunei buruzkoa zen.

Esan den bezala, aktuarioek aztertu eta egiaztatu ondoren, informazioa muntadun suertatu zen nafar zergadun bati zegokionez bakarrik (hain zuzen ere, lehenagoko 1. eta 2. ataletan aipaturiko

zergadunetako bat), zeinaren zerga-egoera administratiboki jadanik erregularizatu izan baitzen 2010-06-15ean jasotako datuetan oinarrituriko ikuskapen-akten bitartez. Informazio osagarri horren ondorioz, 2007ko PFEZaren inguruko ustezko delitu fiskalagatik beste salaketa bat aurkeztu zen zergadun horren kontra.

4. "Falciani zerrenda"ko informazioak Nafarroan ekarritako ondorioen laburpena honako hau da:

– Informazioa 2010-06-15ean jaso zen Nafarroako Zerga Ogasunean, eta informazio hori eguneratu egin zen 2013-06-11n jasotako beste informazio baten bidez.

– Informazio hori helbide fiskala Nafarroan zeukaten hamaika pertsona fisikori buruzkoa zen, zein-

nak, ustez, HSBCko zenbait konturen titular edo onuradun izen baitzitezkeen.

– Nafarroako Zerga Ogasunak pertsona horiei guztiei zerga-ikuskapena egiteko prozedura hasi zuen.

– Ikuskapen-jardunaren ondorioz, bi zergadun ustezko delitu fiskalagatik salatuak izan dira, eta gainerakoei beren zerga-egoera erregularizatu zaie, lehenago zehazturiko moduan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko apirilaren 8an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, haurdunaldiaren borondatezko etendura dela-eta profesionalen erregistroa sortzen duen azaroaren 8ko 16/2010 Foru Legeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, haurdunaldiaren borondatezko etendura dela-eta profesionalen erregistroa sortzen duen azaroaren 8ko 16/2010 Foru Legeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 13ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Haurdunaldiaren borondatezko etendura dela-eta profesionalen erregistroa sortzen duen azaroaren 8ko 16/2010 Foru Legeari buruzkoan (8-15-PES-00021). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariari:

1. Haurdunaldiaren borondatezko etendura batean zuzenean inplikaturiko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zenbat profesional eman dute izena kontzientzia-eragozleen erre-

gistroan, 16/2010 Foru Legeari jarraituz? Noiz egin dute?

Erregistroan osasun arloko profesional bat dago inskribatua 2011-11-30ean.

2. Administrazioak ba al daki zenbat eskabidek ez dituzten bete legezko betekizunak, edo haurdunaldiaren borondatezko etendura batean zuzenean inplikaturiko ez dauden profesionalak aurkeztuak diren?

Legezko betekizunak bete ez dituzten bi eskabide jaso dira.

3. Administrazioak ba al daki haurdunaldiaren borondatezko etendura batean zuzenean inplikaturiko ez dauden zenbat sendagilek esaten dieten beren pazienteei kontzientzia-eragozleak direla eta, hartara, ezetza ematen dioten, esate baterako, emakumeei baja emateari beste autonomia erkidego batzuetara joan ahal izan daitezen, autonomia erkidego horietan bai egiten baita etendura hori, hartara prozedura hori eragotzirik eta emakume horiei sufrimendu bidegabe, ilegal eta ez-legitimo gehigarria eraginik?

Erregistroan ageri diren datuez gain, ez dugu ezagutu horrelako zailtasunak izan dituen kasurik.

4. Administrazioak zer neurri hartu ditu eragozleak ez diren sendagileek osasun-prestazio hori egin ahal izan dezaten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zentroetan?

Behinola Osasun Departamentuak erabaki zuen haurdunaldiaren borondatezko etendurak deribatzea, zerbitzu-zorroko zenbait prestaziorekin egiten den bezala. Haurdunaldiaren borondatezko etendura batzuk Nafarroako klinika batean egiten dira eta beste batzuk beste autonomia erkidego batzuetako ospitaleetan.

5. Foru Administrazioak zer neurri hartu ditu galarazte edo ekidite aldera haurdunaldiaren eten-duran zuzenean inplikaturik ez dauden sendagileek etendura hori oztopatzea, ez dagokien kontzientzia-eragozpena alegatuz eta hartara egoera horretan dauden emakumeak zor zaien gutxieneko errespetuarekin arta ditzaten?

Hirugarren galderaren erantzunean azaldu denez, ez dugu horrelako zailtasunen berririk jakin.

6. Emakumeei oraindik ere antisorgailuak arrazoi ideologiko hutsez errezetatzeari ezetza ematen dioten sendagileak oraindik ere badaudenez, Administrazioak zer neurri hartu ditu emakume horien eskubidea, antisorgailuak jasotzekoa, bermatzeko?

Osasun Departamentuak kasu guztietan errespetatzen du sendagileen preskripzio askatasuna eta ezin du eragin ez botika horien ez bestelako preskripzioetan.

Emakumeek sendagile aldaketa eska dezakete, sendagileren batek arrazoi ideologikoengatik beren eskubideak urratzen dituela uste izanez gero.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko apirilaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 13ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du: "Ez al da berriro urratzen ari osasun-prestazioak berdintasunez jasotzeko printzipioa? Lekualdatutako pazienteak" (8-15-PES-00022). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

Gastuen itzulketa, zenbateko handiagoko gastu xehakatuak aurkezten direnean

Haurdunaldia borondatez eteteko beste autonomia erkidego batera joan behar duten edo joan

nahi duten pazienteen bidaietarako eta mantentzeko dietei dagokienez, gastu horiek ordaintzen dira uztailaren 30eko 212/2001 Foru Dekretua betetzeko, beste autonomia erkidego batzuetara osasun laguntza jasotzera bidalitako Osasunbideko gaixoentzako bidaietarako, ostaturako eta otorduetarako dietak arautzen dituen dekretua hain zuzen, eta hura aldatzen duen apirilaren 21eko 31/2008 Foru Dekretua betetzeko. Arau horietan ezartzen da nola ordaindu behar diren joan-etorrien gastuak. "Erabilitako garraioa edozein izanik ere, gehienez haxe ordainduko zaie: ... tren garraio arrunteko tarifa (bigarren klasea) edo autobuseko zerbitzu arrunta". Ostatu eta mantentzeko dieten kasuan, egunean gehienez 30 euroko zenbatekoa ezartzen da pertsona bakoitzeko (pazientearentzat, ospitaleraturik ez badago, eta laguntzaile batentzat), betiere gastuak jatorrizko fakturen bidez frogatzen badira. Hala, gastuen itzulketa batez ari gara, eta hori, berez, ezin da ordaindu gastuak egin aurretik.

Pazienteak azkenean ordaintzen duen diru kopurua itzul daitekeena baino handiagoa ote den argitzeko, ez daukagu pazienteek horri buruz emandako daturik, eta beraz ezin dugu berretsi ea

sortutako gastua egiaz % 100 handiagoa den kasu guztietan, edo paziente bakoitzak hautatutako garraibidearen eta ostatuaren arabera den, indarra duen araudiak ezarritako baldintzak gorabehera.

Gastuen itzulketa izapidetzeko denborari dagokionez, hori Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren eskumenekoa da.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ba al dauka itunik pazienteak bideratzen diren klinika horiekin? Zer baldintza jasotzen dira itun horietan? Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zer irizpide darabil, osasun-laguntzaren kalitateari dagokionez, itun horiek sinatzeko?

Ez dago inolako itunik Nafarroaz kanpoko klinikekin.

Osasun-laguntzaren kalitate irizpideei dagokionez, zentro bakoitza non dagoen, hango autonomia erkidegoak ezartzen ditu irizpideak, legezko betekizunak bete behar baitira zentro baimenduna izateko, haurdunaldiaren borondatezko etetea

pazienteentzako berme osoarekin egiteko gai dena.

Galderan aipatutako beste kontu batzuk direla-eta:

– *In itinere* istripuen arriskua. Argudio hori edonork egin beharreko edozein joan-etorriri aplikatu ahal zaio, osasun-laguntza etxean bertan ematen ez badiote. Izabako pertsona batek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan osasun-laguntza jaso behar badu, esate baterako proba diagnostiko baterako, eta osasun-garraioan eramaten ez badute, hark ere *in itinere* istripuaren arriskua izanen du.

– Eragozpen “logistikoak”. Aurreko argudio bera. Norbaiti, are Iruñekoa izanik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ebakuntza egiten badiogu eta 3 egun eman behar baditu ospitalean, egun horietan arazo “logistiko” berberei egin beharko die aurre.

Azpimarratu behar da gero eta paziente guxtiago bideratzen direla Nafarroaz kanpoko zentro-eta, honako datu hauek argi erakusten dutenez:

PRESTAZIO ETA ITUN ZERBITZUAK ORDAINDUTAKO HBE-ak

ZENTROAK	2010. URTEA		2011. URTEA		2012. URTEA		2013. URTEA		2014. URTEA	
	Kop.	ZENBATEKOA	Kop.	ZENBATEKOA	Kop.	ZENBATEKOA	Kop.	ZENBATEKOA	Kop.	ZENBATEKOA
ASKABIDE (Donostia)	306	108.680,00	447	161.140,00	12	4.260,00	2	700,00	3	1.250,00
ANSOAIN KLINIKA			219	92.190,00	846	352.360,00	792	334.440,00	713	295.700,00
EUSKAL DUNA KLINIKA (Bilbo)	8	4.480,00	10	5.670,00			2	1.400,00	2	1.250,00
ISADORA KLINIKA (Madril)	42	33.329,35	39	30.889,16	23	24.249,50	11	12.705,31	21	23.602,94
MANUEL PRADA LARA	1	320,00								
ARAGOIKO OSASUN UNITATEA (Zaragoza)	132	80.110,00	244	129.245,00	104	55.445,00	74	35.705,00	64	30.935,00
GUZTIRA	489	226.919,35	959	419.134,16	985	436.314,50	881	384.950,31	803	352.737,94
NAFARROATIK kanpo, GUZTIRA	489	226.919	740	326.944	139	83.955	89	50.510	90	57.038

Datu horien gaineko oharra:

Pazienteek berek hautatzen dute operazioa egiteko zentroa. Emakumeari Laguntzeko Zentroetan informazioa ematen zaie eta berek erabakitzen dute. Isadora klinikara joaten dira patologiarekin batentzat edota haurduntza-denboragatik HBE konplikatua duten pazienteak. Aragoiko Unitatera ere haurduntza-denbora luzeko pazienteak joaten dira, baina Isadorakoak baino zailtasun guxtiagokoak.

Azken bi urteetan HBE kopuruak behera egin du. Prebentzio politika eraginkorragoaren ondorio ote da?

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko apirilaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Nafarroako Museoak igandeetan bi solairu ixteko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Museoak igandeetan bi solairu ixteko arrazoiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urtarrilaren 23ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Museoak igandeetan bi solairu ixteko arrazoiei buruz (PES-00005). Hau erantzun du Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde,

eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Museoak normalean ez ditu bi solairu ixten igandeetan.

2015eko lehenengo bi igandeetan, artean "Eguberri garaian", 2014ko azken opor egunak eman zitzaizkien areto-zaintzaile batzuei. Inguruabar horri gaixotasun baja bat gehitu zitzaion eta hirugarren eta laugarren solairuak itxi behar izan ziren.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko apirilean

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, beste herrialde batzuetan lan-etorkizuna aurkitzearen Nafarroatik alde egiten duten pertsonen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, beste herrialde batzuetan lan-etorkizuna aurkitzearen Nafarroatik alde egiten duten pertsonen buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 13ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2015eko martxoaren 5eko 581 sarrera-zenbakiarekin erregistra-

tua, azken zazpi urteotan beste herrialde batzuetara emigratu duten gazte nafarrei buruz (8-15/PES-0024). Galdera horri dagokionez hau erantzun du Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

Gai horri buruzko informazioa emateko zenbait iturri estatistiko kontsultatu dira, eta lehen-lehenik azpimarratu beharra dago iturri horietatik atera daitekeela zenbat nafar dauden atzerrian erregistraturik, baina ez zergatik dauden atzerrian. Horregatik, komeni da zehaztea hemen ematen diren datuek ez dutela zertan beti zerikusia izan lana aurkitzeko itxaropenarekin.

Bizileku Aldaketen Estatistika biztanleen migrazio mugimenduei buruzko informazio iturria da. Haren arabera, Nafarroan jaio eta azken urteotan atzerrira emigratu duten pertsonen bilakaera honako hau da:

ADINA	2009	2010	211	2012	2013
15-19	787	716	754	742	692
20-24	1395	1433	1262	1251	1120
25-29	1566	1732	1544	1652	1440
30-34	1333	1465	1375	1552	1496

Atzerrian bizi diren Espainiarren Erroldako datuen arabera, azken 6 urteotan, Nafarroan jaio eta atzerrian bizi diren pertsonatzat inskribatuta daudenen bilakaera honako hau izan da:

ADINA	2009	2010	211	2012	2013	2014
15-19	792	888	1073	1176	1351	1482
20-24	989	1075	1113	1236	1384	1575
25-29	909	1008	1112	1148	1252	1427
30-34	971	1064	1218	1355	1447	1579

Ikus daitekeenez, kopuruak aldatu egiten dira erabilitako iturri estatistikoaren arabera. Ez da erraz neur daitekeen kontua.

Gazteentzat hartutako enplegu neurriei dago-kienez, esan beharra dago 2014. urtean Nafarroako Gobernuak abian jarri zuela Gazteen Enplegurako Programa. Programa horren xedea da gazteen langabezia tasa murrizten laguntzea, Nafarroako gazteen kualifikazioen hobekuntza eta kontratazioaren nahiz autoenpleguaren sustapena direla medio. Honako jarduketa hauek burutu ziren 2014. urtean:

– Prestakuntza: Enplegurako 42 prestakuntza ekintza burutu ziren. Guztira 8.610 ordu iraun zuten eta 440 pertsonak parte hartu zuten.

– Kontratazioa: Toki entitateek 39 gazte kontratatzea finantzatu zen.

– Lanekoak ez diren praktikak: Atzerrian praktikak egiteko 22 beka finantzatu ziren.

Neurri horiek, 2015-2017 bitartean hartu behar diren neurriekin batera, gazteen enplegarritasuna

na hobetzea eta gazteak laneratzen laguntzea dute helburu nagusia.

2014. urtean, programa horren aurrekontua 1.464.000 eurokoa izan da.

Esan behar da, azkenik, legegintzaldi osoan zehar gazteen kolektiboa lehentasunezkoa izan dela enpleguaren arloko politika aktibo guztietan. Azpimarratzekoak dira, adibide gisa, toki entitateek edota irabazi-asmorik gabeko entitateek langabeak kontratatu izana, autoenplegua sustatzeko laguntzak, ekonomia sozialeko enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak, enplegurako lantegi-eskoletarako eta enplegurako prestakuntza ekintzetarako diru-laguntzak etab. Ekintza horietan parte hartu duten gazteen portzentajea % 10 izan da batez beste.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko apirilaren 13an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, mendekotasuna izanda Iruñean edo Iruñerrian bizi ziren eta gaur egun kanpoan, Nafarroako Gobernuarekin itundutako egoitza batean, bizi diren pertsonen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maite Esporrín Las Heras andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, mendekotasuna izanda Iruñean edo Iruñerrian bizi ziren eta gaur egun kanpoan, Nafarroako Gobernuarekin itundutako egoitza batean, bizi diren pertsonen buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 20ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Maite Esporrín Las Heras andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, mendekotasuna izanda Iruñean edo Iruñerrian bizi ziren eta gaur egun kanpoan, Nafarroako Gobernuarekin

itundutako egoitza-toki batean, bizi diren pertsonen buruz (8-15/PES- 00028). Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Gizarte Politiketako kontseilariak:

Galdera horri erantzunez honako hau esan daiteke:

*Argitu behar da erantzuna adinekoen sektore-rako dela, parlamentari andreak eskatutako informazioak sektore horretan baizik ezin baitu pisua izan; mendekotasunaren eta buruko gaixotasunen alorretan ez da zonaka lan egiten, zerbitzu beharren arabera baizik.

2014. urtean, balorazioaren arabera mendekotasuna zuten pertsonak Iruñean eta Iruñerrian 6.030 ziren (tartean adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak eta buruko gaixotasuna duten pertsonak). Haietatik 775 bizi ziren Iruñeko edo Iruñerriko adinekoentzako egoitzetako toki publiko edo itunduetan.

Mendekotasuna izanda Iruñean edo Iruñerrian bizi ziren 70 pertsona daude gaur egun beren gizarte zerbitzuen eremutik kanpoko adinekoentzako egoitzetako toki itunduetan.

1. Pertsona horietako zenbatek eskatu dute Iruñeko edo Iruñerriko egoitza batera eraman ditzaten?

Hasiera batean, bizi diren eremutik kanpoko adinekoentzako egoitza-toki batera joaten diren pertsona guztiek badute aukera beren eremura itzultzeko, toki bat hutsik geratzen denean.

Oraingoz 70 pertsona horietatik 5ek bakarrik aurkeztu dute beren gizarte zerbitzuen eremura aldatzeko eskaera.

2. Mendekotasuna izanda –neurri handiagoan edo txikiagoan– Iruñeko edo Iruñerriko

beren etxean bizi diren zenbat pertsona daude une honetan itxarote-zerrendan, Nafarroako Gobernuarekin itundutako egoitza-toki bat eman dakien?

Mendekotasuna izanda gaur egun Iruñeko edo Iruñerriko beren etxean bizi diren 12 pertsona daude itxaroten, adinekoentzako egoitza publikoen eta itunduen sareko egoitza-toki publiko bat noiz esleituko zain.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko apirilaren 15ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Iruñean eta Iruñerrian itundutako egoitzetako toki-kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maite Esporrín Las Heras andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñean eta Iruñerrian itundutako egoitzetako toki-kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 20ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Maite Esporrín Las Heras andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Iruñean eta Iruñerrian itundutako egoitzetako toki kopuruari buruz (8-15/PES- 00029). Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Gizarte Politiketako kontseilariak:

Informazio eskaera horri erantzunez esan daiteke legegintzaldiaren hasieran Iruñean eta Iruñerrian 961 zirela eskubide bermatuko pertsonentzako egoitza-toki itunduak.

Gaur egun, berriz, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak Iruñean eta Iruñerrian itundutako 988 egoitza-toki dauzka eskubide bermatuko pertsonentzat. Hau da, 27 toki gehiago.

Aipa daiteke, informazio osagarri gisa, itundutako tokiak (egoitzetan, etxebizitzetan, eguneko zentroetan eta errehabilitazio psikosozialeko zentroetan) legegintzaldiaren hasieran 1.327 zirela Iruñean eta Iruñerrian.

Orain baditugu itundutako 1.448 toki. Hau da, 121 toki gehiago.

Aurrekoei zentro okupazionalak tokiak gehitu behar zaizkie. Une honetan 878 dira, eta legegintzaldiaren hasieran 838 ziren; beraz, 40 toki gehiago daude.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko apirilaren 15ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, IPESen Emakumearen Liburutegiaren finantzaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, IPE-Sen Emakumearen Liburutegiaren finantzaketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 19ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak IPE-Sen Emakumearen Liburutegiaren finantzaketari

buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00251) hau erantzun du Nafarroako Gobernu bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Legegintzaldi honetan onetsitako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ez dago inolako diru-esleipenik eremu pribatuko liburutegiak finantzatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko apirilean

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Gobernuko Departamentu bakoitzak legegintzaldiaz egiten duen balantzeari eta hurrengo legegintzaldirako jorratzeke gelditzen zaizkion gaiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuko Departamentu bakoitzak legegintzaldiaz egiten duen balantzeari eta hurrengo legegintzaldirako jorratzeke gelditzen zaizkion gaiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 20ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu Nafarroako Gobernuko departamentuek legegintzaldiaz egiten duten balantzeari eta hurrengo legegintzaldirako jorratzeke gelditzen zaizkien

gaiei buruz (PES-00030, PES-00031, PES-00032, PES-00033, PES-00034, PES-00035, PES-00036, PES-00037). Galdera horiei dagokienez hau erantzun du Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Honi erantsita doa eledun honek iragan martxoaren 11n, zure eskaeraren bezperan, Foru Parlamentuko lehendakariari zuzendutako idazkia, zeinaren bidez Gobernuko kontseilari guztiek ofizioski eskatu baitzuten haren agerraldia, legegintzaldi honen balantzearen berri eman zezan. Mahaiak eta Eledunen Batzarrak eskaintza horri uko egin zioten iragan martxoaren 16an.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko apirilean

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, eraldaketa edo/eta banaketa sektoreak nekazaritzako elikagaien produkzioaren Nafarroako sektorean eskua sartzeari edo presioa egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eraldaketa edo/eta banaketa sektoreak nekazaritzako elikagaien produkzioaren Nafarroako sektorean eskua sartzeari edo presioa egiteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 20ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak esne sektoreari buruz egindako galderari dagokionez (8-15/PES-00026), hau erantzun du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak:

1. puntua.- Nekazaritzako elikagaien ekoizleekin daukan harremanean, Departamentuak kexak jaso ditu zenbait erosleek ez dizkietelako hornidura-kontratuak berriro zenbait ekoizleri, kontratu horiek amaitu direnean. Ekoizleek presio neurriekin lotzen dute halako egoera izatea, baina ez da kexa hori justifikatu.

2. puntua.- Nafarroan ez da horrelako egoerarik egiaztatu.

3. puntua.- Ekoizleei laguntzeko neurriak asko dira:

– Nafarroako Gobernuak Nekazaritzako Elikagaien arloko Kooperatiben Integraziorako 2015-2020 bitarteko Esparru Estrategikoa onetsi du. Horren helburu nagusia da kooperatiben integrazioa sustatzea, entitate horien lehiakortasuna, neurri-aldaketa, modernizazioa eta nazioartekotzea areagotzeko. Hartara ekoizleek balio-katean banaketaren aurrean duten posizioa hobetzea lortuko da, ekoizle gehien-gehienak Nafarroako kooperatibetako bazkideak baitira. Esparru hori onesterakoan ezinbestekoa izan da Nafarroako nekazaritzako kooperatibek parte hartzea, UCA-Nek ordezkaturata.

– Fruta eta barazki ekoizleen erakundeen ekin-tza-programetarako laguntzak.

– Kalitate bereiziko figuren kontseilu arautzaileak, Nafarroako nekazaritzako ekoizleak biltzen dituztenak, sustatzeko laguntzak.

– Ekoizleentzako zuzeneko laguntzak, balio-katean bereziki ahulak diren sektoreetan (esnetarako eta haragitarako behi azienda, ardi azienda...).

– Oro har, landa garapenerako programetako laguntzak eta diru-laguntzak banatzerakoan nekazaritzako ekoizleen elkarteak lehenetsiko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko apirilaren 15ean

Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko lehen fasea handitzeko obretan legar-hobiak erabiltzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko lehen fasea handitzeko obretan legar-hobiak erabiltzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 20ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak informazio eskaera egin du (8-15/PES-00027) honako gai hauei buruz:

1. INTIA, S.A.-k obrak lizitatu aurretik ba al zekien Nafarroako Gobernuak obren enpresa esleipen-hartzaileak obra horietan erabiliko zituela ingurumen-kalteen proiektuan aurreikusten ez ziren lurretatik ateratako legarrak, zeinek ez bai-

taukate Nafarroako Gobernuaren Energiaren eta Meategien Atalaren kasuko lege-baimenik?

2. Nafarroako Gobernuak edo bere entitate instrumentalek sustatutako herri lanetan ohikoa al da partikularrei eskatutako baimenik ez daukaten legar-hobiak erabiltzea, hartara sustatzaile pribatuei exijitzen zaizkien izapideak –garestiak eta luzeak– ekidinez?

3. Legar-hobiak irekitzeko obrak sustatzen direnean, Nafarroako Gobernuko departamentuek edo bere entitate instrumentalek horren berri ematen al diote Energiaren eta Meategien Atalari? Zenbat espediente jakinarazi izan dira azken bost urteotan? Zenbat espediente ez dira jakinarazi azken bost urteotan?

4. Nafarroako Gobernuak zer kalte-ordain emanen die legeztatutako legar-hobien jabeei, zeinek beharrezkoak diren baimen guztiak baitituzte horiek ustiatzeko eta Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren lehen fasea handitzearen ingurumen-kalteen proiektuan sartu baitziren, baldin eta legar-hobi legeztatu gabeak erabiltzen baditu Aguas de Navarra, S.A. enpresen aldi baterako batasunak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta

Enplegu Departamentuaren baimenik ez daukate-lako?

5. Nafarroako Gobernuak inolako zehapenik ezarriko al dio Aguas de Navarra, S.A. enpresen aldi baterako batasunari, legez kanpoko praktika horrengatik, baldin eta halakorik gertatzen bada?

6. Nafarroako Gobernuak edo INTIA, S.A.-k zer egingen dute Aguas de Navarra, S.A. enpresen aldi baterako batasunarekiko kontratuaren oreka berrezartzeko, baldin eta legezgabe legar-hobi mota horiek erabiltzen badira, zeinak kontratua betetzean azken prezioa asko merkatzea baitakar?

7. Nafarroako Gobernuko departamentuek Nafarroako Gobernuko Kontu-hartzailatza Zerbitzuari jakinarazten al diote Nafarroako Gobernuko departamentuek edo bere entitate instrumentalek egiten dituzten kontratuetan erabilitako legar-hobiak ez direla kontratuan ageri direnak, baizik eta Energiaren eta Meategien Atalak legezgabe gabeko beste batzuk, horrek dakarren prezio-aldaketarekin? Jakinarazpen hori egiten ez baldin bada, Kontu-hartzailatza Zerbitzuari praktika hori zer txosten juridikotan oinarrituta ezkututzen zaion jakin nahi dugu.

Hona hemen Landa Garapeneko, Ingurumene-ko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

1. Eraikuntza mailan lizitatu eta esleitutako dokumentua, lizitazioarako eskuragarri jarritako beharrezko dokumentazioan berariaz jasorik utzi zenez, eremu ureztagarriko eraikuntza aurre-proiektua da (oinarrizko proiektua). Beraz, ez ditu eraikuntza proiektuak bezain zehatz definitzen jarduketak, eraikuntza proiektuaren aurreko zehaztasun maila baitu. Hori horrela da, badagoelako lur-

zatiak berrantolatzeko prozedura bat, Nekazari-tzako Azpiegiturei buruzko 1/2002 Foru Legearen aginduz sektore bakoitzeko obrak hasi aurretik burutu behar dena. Prozesu horrek definitzen du zehazki jarduketa eremua. Lizitatutako aurre-proiektuan ez zen sartu legarrak ateratzeko lurren kokapenik.

Nolanahi ere, legarrak ateratzeko legezko baimenak eskuratu behar dira, lizitazioari buruzko dokumentazioan behin eta berriz adierazten denez.

2. eta 3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak egiten dituen obretan legar-hobien irekieren berri ematen da 2013. urtetik. Legar-hobi bakarra ireki da, Agezako (Ezporogi) lurzatiak berrantolatzeko eremuko bide eta hustubideen sareko obretakoa, hain zuzen.

4. Ez dago galdera horretarako arrazoirik, 1. galderaren erantzunean adierazitakoaren arabera.

5. Ez dago galdera horretarako arrazoirik, 1. galderaren erantzunean adierazitakoaren arabera.

6. Ez dago galdera horretarako arrazoirik, 1. galderaren erantzunean adierazitakoaren arabera.

7. Ez dago galdera horretarako arrazoirik, 1. galderaren erantzunean adierazitakoaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko apirilaren 15ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, urriaren 23ko 467/2001 Foru Aginduaren betetze-mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marisa de Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, urriaren 23ko 467/2001 Foru Aginduaren betetze-mailari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko martxoaren 27ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du ikasleek osasun zentroetan egiten dituzten praktikei buruz. Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak: Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak zenbateraino bete du abenduaren 23ko 467/2001 Foru Agindua? Eta, Osasun Departamentuaren mendeko osasun zentroetan praktikak egiteko zenbat eskabideri eman zaio ezetza? Zergatik? (8-15-PES-00023). Hauxe da informazioa:

Azken bost urteetan, Osasun zuzendari nagusiaren ebazpen baten bitartez, baimena eman da Osasun Departamentuarekin hitzarmenik ez duten unibertsitateetako 124 ikasleek praktikak egin ditzaten. Aurkeztutako bi eskarieratik biri baizik ez zaie ezezkoa eman, eta bi kasuetan, gure ustez, nahikoa arrazoi bazeuden horretarako.

Horrenbestez, egiazta daiteke zenbateraino bete duen Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak abenduaren 23ko 467/2001 Foru Agindua; gure ustez, oso modu egokian.

Osasun kontseilariaren urriaren 23ko 467/2001 Foru Aginduak, Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen osasun zentroetan unibertsitateko titulazio ofizialei dagozkien prestakuntza praktikak egiteari buruzkoak, arautzen du Osasun Departamentuaren osasun zentroetan praktikak baimentzeko prozedura, berriazko hitzarmenak ez dauden kasuetarako.

Praktikak eskatzeko prozedura eskuragarri egon da hurrengo estekan, izapide eta zerbi-

tzen katalogoaren barruan. Urte osoan dago irekita, eta eskabidea ere bertan dago.

http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/2185/Autorizacion-de-realizacion-de-practicas-en-centros-sanitarios#documentacion2

Prozedurari jarraituz, praktikak egiteko eskaria unibertsitate-zentroak abiatu behar du, webgunean ageri den eskabidea betez; eskabide horretan, besteak beste, honakoak ageri dira: titulazioari buruzko datuak, ikasturtea, praktikei dagokien ikasgaiaren irakasle arduraduna, praktika-ordu eta -kredituak eta praktiketarako programa, hura ebaluatzeko moduekin; gainera, egiaztatu beharra dago ikasleak estaldura daukala osasun-laguntzari eta erantzukizun zibilari dagokienez.

Behin Unibertsitateak eskaria jasota, eta eskatutako praktika-programaren arabera, osasun zentro egokia identifikatuko da. Alabaina, espediente gehienetan, unibertsitatea bera da intereseko osasun zentro zehatza aipatzen duena.

Osasun zentroko irakaskuntza arduradunek eskaria baloratzen dute, praktikak eskatzen diren unitate/zerbitzuetan erabilgarri dagoen irakaskuntza-gaitasunaren arabera, honako printzipio honekin: ikaslearentzat kalitatezko irakaskuntza bat bermatzea, horren bidez zentroko profesional baten tutoretzapean lortutako helburuak lor ditzan.

Eskatutako programarako irakaskuntza-gaitasun egokia daukan guztietan, osasun zentroak baiezkoa ematen du, eta praktiketarako tutore bat esleitzen dio ikasleari. Tutore hori izanen da, unibertsitateko irakaslearekin ados jarrita, ikaslearen jarraipena egiten duena.

Behin osasun zentroaren erantzuna jasota, lkerketa, Berrikuntza eta Prestakuntzarako Zerbitzuak txosten bat ematen du eta Osasun Zuzendaritza Nagusiak ebazpena egiteko proposamena egiten du.

Aipatu den bezala, azken bost urteetan bi eskariri baizik ez zaie ezezkoa eman. Honakoak izan dira bi eskariei ezezkoa emateko arrazoiak:

- 314/2014 zenbakiko eskaria Medikuntzako 6. mailako ikasle batek 16 asteko praktika-programa bat egiteko zen, Nafarroako Ospitaleguneko hainbat unitate eta zerbitzutan. Osasun zentroak honakoa adierazi zuen: "uste dugu une honetan programaren eskaria ez dagokiola zentroaren

antolamenduari, eta ekarriko lukeela egungo aparteko egoerari egokitzea, eta horrek, agian, ez lioke, ikuspuntu akademikotik, onik eginen ikasleari". Horrenbestez, Ikerketa, Berrikuntza eta Prestakuntzarako Zerbitzuak baimenari ezezkoa ematea proposatu zuen, "harrerako zentroan eskaria ez onartzeagatik, zeren eta jo baitute zentroak, egungo egoeran, ezin duela egindako eskariari erantzun eskatutako baldintzetan, eta ezinen lukeela bermatu tutoretza-lan egokia egitea." Hori dela eta, 1433/2014 Ebazpenaren bitartez, praktika horiei ezezkoa eman zitzaion, harrerako zentroak eskaria onartu ez zuelako.

- 326/2015 eskaria Erizaintzako Graduoko bigarren mailako ikasle baten 11 asteko praktika-programa bati dagokio. Oinarrizko osasun laguntzako zentro batean garatzekoa zen programa. Oinarrizko Osasun Laguntzako Erizaintza Zerbitzuak ez zion ikus-onespena eman, zeren eta "Nafarroako osasun etxeetan, gaur egun, 3. edo 4. mailan ari diren ikasleak baitaude... erkidego-erizaintzako ikasgai teorikoak hartu dituztenak. Baldintza horren oinarria da ikasleek alde aurretiko prestakuntza bat jaso izatea, bai edukien aldetik, bai bestelako egonaldiak egiteko, eta gaitasun eta trebetasun batzuk eskuratuak izatea, oinarrizko osasun laguntzako errotazioan aprobetxamendua ahal den handiena izan dadin eta ikasleek ahal den gehiena ikas dezaten". Horrenbestez, Ikerketa, Berrikuntza eta Prestakuntzarako Zerbitzuak proposatu zuen eskariari ezezkoa ematea, eta 371/2015 Ebazpenaren bitartez eskariari ezezkoa eman zitzaion, Oinarrizko Osasun Laguntzako

Erizaintza Zerbitzuaren ikus-onespena falta zelako.

Azken urtean, ahoz egindako beste bi eskari ere egon dira –eskaria ez zen idatziz egitera iritsi–, zeinetan eskatzaileei jakinarazi baitzaie proposatutako espezialitate anitzetako errotazioetarako egindako proposamen zehatza ez zela egingarria; halakoetan, errotazioak zentroak eskaintzen duenaren arabera egokitzeke eskatu da.

Unibertsitate-graduetako plan berrietan Nafarroan dauden unibertsitateetako –Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea eta UNED, haiexekin baitu hitzarmena Osasunbideak– unibertsitate-ikasketetako praktika-orduak nabarmen handitu diren arren, egia da momentuz ez dela arazorik egon praktika horiek 467/2001 Foru Aginduan araututako prozeduraren bitartez eskatutakoekin bateragarri egiteko; horrek, izan ere, aukera eman digu, halaber, Foru Komunitate-tik kanpo ikasten diharduten ikasleen beharrei ere erantzuteko.

Prozedura honen aplikazioak erakutsi duena da posible den guztietan, zentro eta zerbitzuen irakaskuntza-gaitasunaren arabera, eta praktiken kalitatea bermatzeko modua dagoen bitartean, bai unibertsitateei, bai ikasleei bidea ematen zaiela praktikak egiteko Osasun Departamentuaren menpeko osasun etxeetan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko apirilaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín